

Arte Vital lehiaketaren deialdia

Arte Vital Lehiaketa

Entrega: 2024ko irailaren 30era arte



Vital Fundazioak Arte Vital Lehiaketaren edizio berri bat ireki du, hainbat berrikuntza izango dituen deialdi batekin. Haren helburu nagusia Araban egindako hurbileko artea eta bertako artistak babestea eta zabaltzea da.

Deialdiaren faseak

Lehenengo fasea:

Lanaren argazkia bidaliko da posta elektronikoz, aurre-hautaketa bat egiteko.

Bidaltzekoak

- Obraren irudi bat kalitate altuan
- Parte-hartzailearen datuak eta obraren deskribapena
- **E-posta:** efpinedo@fundacionvital.eus

Datak

- **Entregatzeko gehieneko data:** 2024ko irailaren 30a
- **Ebazpena:** Urriak 4
- **Obra fisikoen entregatze-data:** Urriaren 8tik 11ra Fundación Vital egoitzan (Aiztogile

24, kordoi etxea)

**Aukeratutako lan guztiek 'Arte Vital 2024' erakusketa osatuko dute. Erakusketa azaroaren 8an, ostirala, irekiko da Arte eta Lanbide Eskolan.*

Sariak eta epaimahaia

Arte, kultura eta kritika munduko profesional ospetsuek osatutako epaimahaiak, gainera, edizio honetako lau lan irabazleak aukeratuko ditu, eta bakoitzak **1.500€** jasoko ditu.

Oinarriak eta izen-emate orria

- Oinarriak 1.89 MB
- Izen-emate orria 184.3 KB